

Christa Bürger/Peter Bürger
 Agustín González Ruiz en itzulpena
La desaparición del sujeto. Una historia de la subjetividad de Montaigne a Blanchot.
 Madril : Akal, 2001

Subjektuaren desagerpena

Lan hau subjektu modernoaren bilakaeraren historiaz dihardu, Montaigne abiapuntutzat hartuta, R. Barthes-en eta M. Blanchot-en jomugaraino. Liburuak, atalez atal, subjektibitatearen ibilbidea jarraitzen du Europan zehar, XV. mendez geroztik aurrera. Peter Bürger hainbat idazleren testuetara hurbiltzen da; Montaigne, Descartes, Pascal, Voltaire, Diderot, Rousseau, Baudelaire, Flaubert, Valery, Bataille, Sartre, Blanchot eta Barthes dira liburu honen orrialdeetan subjektibitateari buruz hitz egiten duten pentsalariak.

Baina modernitatearen zutabe horietan tartekatuta, emakume batzuen ahotsak ere aurki ditzakegu, zehaztu gabeko subjektibitatearen arazoari aurre egin zioten emakumeenak, hain zuzen, ezin izan ziotenak zehaztasunik ezari ihes egin. Eta, hain zuzen ere, lan honen interesa atalek elkarren artean sortzen duten kontrastean datza. Christa Bürger-ek idatzitako ataletan, Seigné Markesa, Henriette, Marie von Herbert, Bettine von Arnim, Marie-Sophie Leroyer eta Colette Peignot subjektibitatearen filosofiako izen handiekin mintzatzen dira, eta haien artean sortzen diren elkarriketetan, emakume hauek behin eta berriro azpimarratzen dute filosofoek eraikitzen dituzten proiektuak gero eta urrunago geratzen zaizkiela, distantzia gero eta nabarmenago sentitzen dutela haiek proposaturiko planteamen duei dagokienez. Horrela, pentsalariak beren lanetan ezinegona ikertzen dutenean, *ennui* ospetsua, emakumeek, gutunen bitartez, beraien adostasuna adieraziko diete, baina (hala behintzat gertatzen da Christa Bürgerrek aukeratutako testuetan) emakumeek haratago doan zerbait azalduko dute beti, filosofoek egingako ezinegonaren deskribapenari plus bat gehituko diote, beraien ingurune konkretu-

tik sortzen den zehaztu gabeko zerbait bilakatzen dena, erantzunik gabeko galdera erraldoia, erabateko zalantza, zentzu cartesiar zehatzenean.

La desaparición del sujeto lanaren irakurketaren ondoren planteatuta geratzen den galdera hau izan liteke: Montaignetik abiatuta eta Blanchoteraino luzatzen den subjektibitatearen historia, Seigné Markesatik Colette Peignoterainoko subjektibitatearen historia bera al da? Atalen arteko kontrasteek eta emakumeek egingako galderei pentsalariak emandako erantzun indargeek iragartzen dute ezin dela historia bera izan. Mendebaldeko subjektibitatearen historia, kontatu digutena, filosofiak idatzi duena, gizonezkoen subjektibitatearen historia da.

Emakumezkoena haratago doan zeozer izan da beti, kanpoaldea, eta zentzu horretan, aukeratutako azken idazlea, Maurice Blanchot, saiatzen da kanpokoa, bestea, ezezaguna pentsatzen, eta horrela pentsalariak (duela bi urte hil zena) ematen dio sarrera XXI. mendeari.

Horrek esan nahi al du XXI. mendea itxaropentsu ireki dela, pentsalari handienek, gizonezkoek zein emakumezkoek, kontutan hartuko dutela emakumezkoen subjektibitatea? Ez dakit bada, baina liburuaren izenburuak ederki adierazten du ibilbidea: pentsalariak emakumezkoen subjektibitatea kontuan hartzen hasten direnean, subjektua eta subjektibitatearen desagerpena aldarrikatzeko eta iragartzeko baino ez da.

Ana Arregi



Gillian Wearing *Walworth Road*-en aurpegia bendatuta ikusitako emakumeari omenaldia 1995